

## Madariaga 39

— Zabalalde—

### IGOGAILUA

Bost eguneko oporraldia bada ere, amamari agur esaten ez badiote honek muturra okertuko die. Bezperan Uxuek maleta nola egiten zuen agertzen zen bideo bat bidali zioten Whatsappez, baina amamak fundamentuz agur esateko haren etxera joateko eskaria, edo hobeto esanda, xantaia txiki bat egin zieten. Umeek sekula ezin diote ezetzik esan “Musu bat ematen badidazu hemen zuretzat gordeta dudan gauzatxo bat emango dizut” esaldiari.

Horrela ba, Andoni —aita— maletekin kotxean tetrisa egiten gelditu den bitartean, Alazne —ama— eta lau urteko alaba auzo bereko kale batzuk beherago joan dira, Madariaga etorbideko 39. zenbakira, esandakoa betetzera.

Aste Santu bezperako asteazkena da. Ateri den arren temperatura gorabeheratsua da. Goizetan fresko egiten du eta eguerdian eguzkitan jakea kendu behar izaten da. Etxetik arropaz gainezka, irten, bidean guztia kendu eta amamaren marmolezko portalean sartu direnean, berriz, hango freskurak eta igogailua hain astiro ibiltzeak dena berriro janztera derrigortu ditu.

Amak amamaren buzoia gora arte dagoela ikusi du, gutun batzuk postontziaren zirrikitutik kanpo daude. Opor garaian badaezpada horiek guztiak hustea komeni da. Bere ama ez da oporretan joango —aitita hil zenetik ez du inorako gogorik—, baina norbaitek etxean inor ez dagoela pentsa dezake, lapurretan ahalegindu eta...bateg daki.

Gutunak eta propaganda bereizten dagoela alabak zer bait esan dio amari:

—Amatxo, amamaren solairua laugarrena da, ezta? Nire urteak bezala —baina ama *spam*-a eta balio duenaren banatzeko galbahe-lanak egiten dabil buru-belarri.

—Ama! Atea itxiko da! —Alaznek buzoietatik igogailura dauden bi metroak salto batean egin ditu azkar itxi den ate metalikoan besoa sartu ahal izateko, baina beranduegi.

—Uxue! Amamari atea jo eta han itxaron! —oihukatu dio. Laugarrenera arte eskailerak igotzeko aukeran ere pentsatu du, baina fra, minutu batean goian egongo da.

Igogailuak goiko aldean dituen zenbaki digitalei begira gelditu da. Bat, bi, hiru eta lau. Neskatoa ondo heldu izango da. Dauden bi ateetatik amamarena lanpasean txakurraren irudia duena da. Uxuek ondo daki.

Alaznek bere amari mugikorretik etxeko telefono finkora deitu dio badaezpada, umeak txirrina joko diola esateko. Ez du hartu. Kaleko atezain automatikotik ere deitu dio, alperrik. Urteek belarria gogortzen dute.

Igogailua bosgarren solairuan dagoela ikusi du Alaznek. Norbaitek eskatuko zuen. “Ea laster jaisten den”. Minutu bat, bi...berriro ere botoiari eman dio. Zaratatxo elektronikoa solairu guztietan entzuten denez goikoak norbait itxaroten dagoela ohartarazi nahi ditu. “Nor izango ote da? Egun hauetan jende asko ibiliko da maletekin gora eta behera...”, baina Alaznek ez ditu auzoko guztiak ezagutzen. Bere amaren aurrez aurrekoa bai, noizbait harekin eskailburuan gurutzatu izan delako. Berrogeita hamar bat urteko gizon serioa da. Ozta-ozta agurtzen

duen horietako bat. Gainontzeko bizilagunak bistaz ezagutzen ditu, baina ez daki ziur non bizi diren. Etxebizitzaren bat hutsik dago urte osoan eta beste pare bat alokatu egiten dira.

Bost minutu, gehiegi da. Lau pisu mokordo igotzen denbora gutxiago emango du, baina, halako batean, zenbakitxo digitalak mugitzen hasi dira. Bost, lau, hiru, bi, bat... Atetik hanka igeltsatuta duen andre nagusi bat eta gizon bat agertu dira. Alazneri emakumearen aurpegia ezagun egin zaio. Ez zekien bosgarrenekoa zenik ezta hanka hautsita zuelako gurpil-aulkia behar zuenik ere:

—Barkatuko diguzu itxaronaldiagatik. Hanka luze-luze eginda igogailu estu honetan... Nola sartu ere ez dakigu. Oraindik karneta ateratzen gaude! “L”-arekin! —esan du atzean zutik bultzaka zegoenak. Semea izango zen.

Alaznek gustora hartu du igogailua azkenean. Bost minutu ez dira asko San Tomas egunean taloa lukainkarekin eskatzeko orduan, baina bost solairuko eraikin hartan itxaroten egoteko bai.

Behin goian amaren atea jo eta han ere beste minutu luze bat itxaron behar izan du.

—Kaixo, pispirintxo —amak beti deitu izan dio horrela, txikitatik—. Ze handi dagoen gure Uxue! Eta ze ondo hitz egiten duen!

— Bai, ezta? Zer esan dizu ba?

— Bideoagatik diot. A zer nolako azalpenak ematen dituen! Ea, non dago? Eskaileran izkutatuta zaude? Zatoz hona amamari musu bat ematera!

Alazneri zirrara batek bizkar osoa zeharkatu dio eta aurpegia serio-serio jarri zaio:

— Nola? Ez al dago zurekin?

— Nirekin? Ez, hemen ez dago.

Alaznek, eskaileretan gora lehenengo eta beheara ondoren, solairu guztiak zeharkatu ditu. “Uxue!! Uxue!! Non zaude?”. Atariko atea itxita dago, astuna da eta ezin du berak bakarrik zabaldu. Uxuek ez du handik bakarrik irtetzeko gaitasunik.

Berrito igo ditu bosgarrenera arte dauden ehun eskailerak eta igogailuaren makineta hiltzen direnak. Han ez dago inor. Ate txikitxo bat ere badago, trastelekuena izan behar zena, baina eraikin hartan denentzat tokirik ez zegoenez ez zituzten konpartimenduak egin, beraz hortik ez da inora joaten. Gainera giltza behar da eta Uxuek ez daki han sartzen. Ziztu bizian jaitsi da berriro ere portalera. Hutsik dago. Igogailua ere bertan dago. Alaznek botoiari eman dio barruan begiratzeko, baina ez du Uxueren arrastorik aurkitu. Azkar pentsatzen ari da, lokietako zainetan odolaren kolpeak igarri ditzake eta korrikaldiaren ondorioz izerditan eta guztiz berotuta dago. “Eta kalera joan bada?”.

Neska gazte bat etxean sartzera doala ikusi du:

—Kaixo, zer moduz? —arnasestuka dago, bihotza ahotik aterako zaiola dirudi—. Mesede bat eskatu nahi dizut. Bosgarreneko Mirenen alaba naiz eta nire alaba galdu dut. Solairu guztietan begiratu dut eta ez da inondik ere ageri. Kalean begiratzera noa, baina norbaitek atari hau zaintzea behar dut nire senarra etorri arte.

Geldituko zara zu, mesedez?

—Bai, zoaz lasai, ez dut inorako presarik.

Alaznek mugikorra hartu eta Andoniri deitu dio guztia azaltzeko. Laster helduko da amamaren portalera, berak orain kalean begiratu behar du, baina nondik hasi?

Espaloi hartan, metro batzuk aurrerago, gozoki-denda bat eta jostailu-denda bat daude. Uxue beti gelditzen da han begira. Barruan sartu eta galdetu egin du. Ez du nahi zuen emaitza lortu.

Errepidea gurutzatuta Josebaren tabernan sartu da. Umearentzat leku ezaguna da, batzuetan kafesnea, tortilla edo garagardoren bat hartzen dutelako, baina han ez dute neskatila ikusi.

“Zenbat denda daude hemen? Alde batera, bestera, kalean gora, kalean behera?”.

Praketan mugikorraren bibrazioak igarri ditu:

—Andoni, Josebarenean nago, beste espaloian. Uxue ez dago amaren aldeko dendetan.

—Lasai, Miren portalean dago atea zaintzen eta lehen aurkitu duzun neskek auzokoei banan-banan atea joko die ea zerbait ikusi duten jakiteko. Zuk eta biok bila jarraituko dugu. Etxe ingurua egingo dugu lehenengo. Zuk begiratu zure amaren kalean ehun metro eskumarantz eta beste horrenbeste ezkerrerantz espaloi bietan eta gero gauza bera paraleloetan. Nik goitik behera zeharka doazenetan eta bitartean dauden zabuetan begiraturiko dut.

“Plan ona dirudi. Han, hor, hemen itsu-itsuan bilatzen hastea baino hobea bai behintzat”.

Ordu erdi pasatu da. Paraleloetan, perpendikularretan, parke, lorategi eta gainerako zoko, zirrikitu, garaje eta abarretan begiratu dute.

—Andoni, batu gaitezen amaren etxean —deitu dio.

Portalean amama Miren, beste neska eta berrogei urte inguruko gizon bat zain dauzkate. Bikotea Uxue barik datorrela ikustean larritu egin dira. Haien berriak ere ez dira pozgarriak. Neskak laburpena egin die:

—Eraikin osoa arakatu dugu eta inork ez du ezer ikusi. Ni lehenengoan bizi naiz gurasoekin eta bera, Gaizka, hirugarrenean bizi da. Bilaketan eta galdeketan lagundu digu.

Alaznek ezin du gehiago.

—Poliziarri deitu behar diogu lehenbailehen, denbora aurrera doa eta guk ez dakigu nora jo.

### NON NAGO?

Denbora gutxi darama barruan. Ikaratuta eta negar-zotinka dago. Ezin du sinetsi. Orain ulertu du amak hortik bakarrik gelditzen denean esaten dion esaldiaren zentzua: “Egunen batean sustoren bat izango duzu”.

Duela hiru minutu igogailuan bakarrik joatearen zirrara igarri du gorputzean, gero amamaren atera heldu izanaren poztasuna sentitu du eta orain, bere opariaz gozaten egon orde, orkatilak eta eskuak bridekin lotuta eta ahoa zeloarekin estalita ditu.

“Orain zaude isilik eta lasai egon. Gero erregalu bat emango dizugu” izan da entzun duen azkena. Emakume baten ahotsa izan da. Broma bat zela pentsatu du hasieran, “amamaren oparia emateko modu berezia izango

da”, baina gero, segundu batean ahoa eta begiak itxi dizkio norbaitek. Ahots bakarra entzun badu ere, ia seguru dago pertsona biren artean bahitu dutela, ikusmena eta ahotsa aldi berean moztu dizkiotelako: benda eta zelo. Gauza bera gertatu da eskuekin eta oinekin, batera lotu dizkiete, eta batek besapeetatik eta besteak hanketatik helduta, gauza bigunez betetako leku estu batean uzkurtuta sartzera behartu dute.

Ezin du ia arnasarik hartu. Sudurra libre duen arren han barruko gauzek aurpegia estaltzen diote. Sartu dutenean airea hartzeko hutsunea utzi badiote ere, posizio horizontaletik bertikalera pasatu denean guztia hankaz gora jarri da han barruan. Lekua mantaz edo arropaz beteta dagoela dirudi. Beroa baino ez diote ematen. Begietan jarri dioten benda alde batetik askatu da, baina han ez da piperrik ere ikusten. Tirriki-tarraka doan zerbaiten barruan doa. Maleta handi bat dela esango luke. Haren gurpiltxoek Bilboko baldosan zarata asko egiten dute eta bibrazioak hezurretaraino heltzen zaizkio. Oihu egin nahi du, baina zeloak ez dio uzten. Dena den, kanpoaldeko trafiko-hotsarekin alperrik izango litzateke.

Momentu batean beste era bateko espaloian sartu direla suposatu du. Gurasoekin patinatzerara joaten denean antzeko zerbait igartzen du, azalera latzetik leunera pasatzen da. Hori beheko kale nagusiaren beste aldean gertatzen da, zubirako bidean. Etxetik urrun da hori. Estutzen hasi da. Norbaitek bere etxeoengandik banandu du eta batek daki zer egin nahiko duen berarekin. Behin albisteetan agertu zen neskaren istorioa gogoratu du, kanpin batean desagertu zenarena. Ez zen sekula gehiago haren berririk izan.

## POLIZIAK

Poliziak heldu dira. Amak gertatutako guztia azaldu die. Igogailuko itxaronaldia eta bilaketaren denbora tartea kontuan izanda, hogeita hamabost minutu pasatu dira Uxue desagertu denetik. Andonik bere kontura bilatzen jarraitzea erabaki du. Ez du astirik galdu nahi.

Alaznek Uxueren argazki bat aurkitu du mugikorrean eta poliziei pasatu die. Hauek abisua zabaldu dute.

—Lasai, ez da urrun ibiliko —esan du polizietako batek—. Ondo egin duzu ahalik eta azkarren abisatzen. Ni Manu naiz eta zurekin geldituko naiz hemen, baliteke Uxue bera bakarrik atetik sartzea eta hobe da bertan ikusten bagaitu. Bien bitartean, Leire atez ate galdezka hasiko da.

Alaznek baietz egin dio buruarekin. Bere burua zigortzen hasi da igogailuan egin duen arduragabekeriagatik.

“Nola ez ditut lau solairuak berehala igo?”. Negarrez hasi da. Manu poliziak umekeria izan dela eta bere errua ez dela esan dio, baina ez du erraz kontsolatuko.

—Hementxe bertan zuekin hasiko gara axola ez badizue —Leire polizia Gaizka eta neska gazteari zuzendu zaie lehor-lehor. Hauek apur bat harritu dira, eman beharreko azalpenak nahikoa direla uste izan dutelako, baina polizia hau ez da inoiz inortaz fidatzen—. Zein da zure izena?

## NESKA GAZTEA. LEHENENGO EZKERRA.

—Nire izena Jone da.

—Ondo da Jone. Kontaiguzu gertatu dena.

Hogei urteko neskak arnasa hartu du eta gertatu dena ahalik eta ondoen kontatzen hasi da:

—Oporrak hartu ditut gaur. Azken klasea libre izan dugu eta jarraian etxera etorri naiz bidean ogia hartuta. Kale honetako gozoki-dendan erosi dut. Atarian sartu naizenean Alaznek bertan itxaroteko eskatu dit, Uxue agertuko balitz bere zain egoteko. Gero Andoni, bere senarra, agertu da korrika eta hark Miren, laugarreneko amama, atean jarri du nire lekuan eta ni ate joka hasi naiz.

—Ondo da —Leirek okindegiko poltsa begiratu dio. Gozoki-dendako logo bat darama—. Atez ate hasi zarenean nortzuk aurkitu dituzu? Zer esan dizute?

—Tira ba...—Jone atzamarrak ateratzen hasi da pisu desberdinen kontrola eramateko—. Gaizkak eskumako atean galdetu du eta nik ezkerrekoetan, baina informazioa amankomunean jarri dugu. Lehenengo ezkerra gurea da. Neu baino ez nago. Nire gurasoak Lanzarotera joan ziren aurreko osturalean. Han bi aste egongo dira; gure aurrekoa pisu turistikoa da. Momentuz ez da inor heldu, baina heltzekotan gaur edo bihar etorriko da bisitariren bat; bigarren ezkerrean, gure gainean, Juanjo eta Marisa bizi dira. Laurogeina urte dituzte, etxean aurkituko dituzu; hauen aurrean ikasle batzuk bizi dira. Ez dute atea ireki. Atzo unibertsitate desberdinetako jai handi bat ospatu zen eta ikasle asko eta asko buruko minarekin egongo dira gaur seguruenik; hirugarren ezkerra hutsik dago, hor ez dago inor; hirugarren eskuman Gaizka bizi da, atez ate galdetzen lagundu didana; laugarren ezkerra Mirenena da, Uxueren amamarena, eta eskuma Santirena, gizon serio batena. Santi etxean dago. Ez du lanik egiten; eta azkenik bosgarrenean, Mirenen gainean, familia bat bizi da alokairuan: aita Nikolas, ama Edurne dela uste dut, eta bi seme-alaba. Gaur aita dago umeekin, umeak oporretan eta bera langabezian. Ama ez da berandura arte itzuliko. Beste aldekoa hanka apurtu berri duen andre nagusi baten etxebizitza da. Orain bere semeak laguntzen dio. Atea jo dieran ez dira egon.

Leirek guztia apuntatu du orri zuri batean. Lehenengo karratu handi bat marraztu eta hamar laukitxotan banatu du. Gero bosteko altuera eta biko zabalera duen krokisean, eraikina bera izango balitz bezala, izenak eta oharrak jarri ditu.

Bi laukitan itxa handi batzuk jarri ditu: lehenengo ezkerrean, Jonerenean; eta laugarren ezkerrean, Mirenenean.

—Manu, lortu ezazu igeltoarekin jaitsi den andrearen telefono zenbakia eta datozela ahalik eta arinen. Bera eta bere semea izan dira desagertzea gertatu denean hurbilen egon direnak. Baliteke zeozer entzun izana.

## BIGARREN SOLAIRUA

Leirek ez du bigarren solairuan inolako informaziorik lortzeko itxaropenik. Lehenengo ezkerreko atean jo du. Marisak behatxulotik begiratu eta gero etxeko hiru sarrailak giltzaz ireki eta, azkenik, atea zabaldu du.

—Kaixo, sartu —andre nagusiak pausu bat atzerantz egin du uniformedun neskari atondoan lekua egiteko. Jarraian salako sofatik Juanjok agurra egin du. Telebista topera jarrita dauka.

—Kaixo, azkar-azkar —Leirek ez du denborarik galdu nahi—. Mirenen, zuen auzokoaren, biloba desagertu da eta ea zuek zerbait entzun duzuen jakin nahi dut.

Marisak harridura aurpegia jarri du. Juanjori ere zutik jartzeko gogoa jarri zaio eta bolumena jaitsi du:

—Non izan da? —galdetu du.

—Hemen, eskaileretan edo igogailuan, orain dela ordu erdi inguru.

Marisak ezezkoa egin du buruarekin. Juanjok keinu bera egin du.

—Gu albistegi aurreko tertulia ikusten egon gara.

Polizia bere krokisean beste ixa bat jartzera joan denean gizon nagusiak zera bota du:

—Goian norbait dabilela uste dut. Kolpeak entzun ditut.

—Baina, hori hutsik dago, ezta?

—Hori uste genuen guk, baina gaur norbait ibili da.

Leirek oharretan “zaratak” idatzi du 3 Ezk laukitxoan eta aurrez aurreko atea jo du.

Ez dio inork ere erantzun. Minutu batez txirrina erre arte jo du eta azkenean mutil gazte ilehori batek atea ireki du. Tipoa kantzontzilotan dago erdi lo eta, duen alkohol kiratsa usainduta, ahoan txiskero bat jarritz gero su hartzeko arriskua du. Hall-eko argia piztu eta polizia parean ikusi duenean banpiroak eguzkitan baino gehiago sufritu du. Ez dirudi kobazulo hartan barrurago daudenak askoz hobeto egongo direnik.

—Kaixo, polizia naiz. Gaur neska bat desagertu da hemen. Zerbait entzun al duzue?

—Disculpe, no hablo idioma...

Leirek ingelesez galdetu dio gero. Han barruan bera eta beste bi mutil omen daude. Goizeko zortzietan heldu dira eta K.O. daude guztiak. Horiek, heldu diren egoeran, ez lukete maniki bat ere bahituko.

### **HIRUGARREN SOLAIRUA. GAIZKA.**

Gaizkak atea parez pare zabaldu dio Leireri. Salan eseri dira. Eraikina hiriko garestienetakoa ez bada ere, etxea barrutik dotore jarrita dauka eta oso eguzkitsua da. Bista onak ditu. Egongelak berak bulegoa dirudi: mahai handi bat, zerbaitz beteta dauden bi ordenagailu, paperak eta atzeko horman diploma eta ziurtagiri pare bat markoetan sartuta. Itsasoko kontuak ere gustatzen zaizkio antza. Belaontzi-txapelketetako hainbat trofeo ditu han, hor, hemen jarrita; klub nautikoko kideen argazki bat; bi itsasontziren miniaturak...

Bera elegante doa alkandora zuri-zuria eta bakero berri batzuk jantzita. Urduri dirudi.

—Kaixo, Leire. Zerbait hartu nahi duzu? Kafesne bat edo?

—Ez, lasai. Zure bertsioa entzun eta jarraitu beharra daukat.

—Ederto. Nik ere azkar amaitzen badut hobeto, burtsako kontuekin lan egiten dut eta gaurko Uxueren gertaerarekin etenaldia luzatu zait, eta bezeroek ez dute barkatzen!

Leirek portalean susmo bat izan du eta orain, aurrez aurre egonda, eskua surtan jarrita baieztatuko luke Gaizka drogatuta dagoela, hau da, kafea baino zerbait gehiago hartu duela lanari ekiteko. Ikasleen pisuan sartu izan balitz han ere aurkituko zukeen zerbait seguru, baina beste lehentasun batzuk ditu.

—Jonek atea jo eta egoera azaldu didanean esku artean izan dudana utzi eta laguntza eskaini diot. Berak ezkerrekoei galdetu die eta nik eskumakoei. Santi baino ez dut aurkitu. Berak ez daki ezer. Haizea hartzen bidali nau ia-ia...oso tipo atsegina da, ikusiko duzu —ironia bor-bor—. Erasmuseko batzuk ere badaudela uste dut, baina ez dute atea ireki; beste etxea turistikoa da eta bosgarrenekoa, andre nagusia, kanpoan da.

—Nor bizi da zure aurrean?

—Hirugarren ezkerrean? Hutsik dago.

—Eta norena da?

—Ugazabandrea Maria Urrutia da. Oso nagusia da eta alaba batekin Madrilen bizi da. Nik dakidala komunitateko gastuak eta horrelakoak sasoiz ordaintzen dituzte, baina ez dute pisua alokatu —esku artean duen telefonoak jo du eta lekutik altxatu da—. Barkatu, Leire. Lan kontuak dira. Minutu bat, mesedez.

Gaizka pasilloan barrena galdu da eta atzealdeko gela bateko atea itxi du. Leireri ere deitu diote:

—Konforme, Manu. Esaiezu etxean itzaroteko, hirugarrenean nago oraindik.

Deia hartu duenean instintiboki sofatik altxatu da eta pauso batzuk eman ditu. Askotan egiten du hori, bulegoan, lagunekin tabernan dagoenean...Berari esan behar diotena gehienetan konfidentziala denez albo batera joaten da. Konturatu gabe, oharkabean, sukaldean amaitu du. "Hemen harrapatzen banau, ze lotsa!". Gaizka atzeko gelan dago oraindik. Leire isil-isilik gelditu da, baina ez du haren elkarrizketa entzuteko modurik izan. Berrito salako bidea hartu duenean, erdiko gela batean, ohe baten gainean arropa asko ikusi du, txukun-txukun tolestuta.

Gaizka itzuli denean barkamena eskatu du berriro ere. Urduri jarraitzen du, baina disimulatu egin nahi du.

—Ondo da. Nire partetik ez dago besterik, Gaizka. Aste Santuan oporretan joateko gogorik, bai?

—Ba...ez, ez. Txangoren bat hortik agian, baina aparteko gauzarik ez.

### LAUGARREN SOLAIRUA. SANTI.

Leirek txirrina hirugarrenez jo dionean etxe barrutik argi eta garbi entzun du: "Nor osti da?".

Atea modu txarrean ireki duen arren uniformeak zeozer baretu du.

—Ah, neska horrena. Ez daukat ideiarik ere. Nik ez dut ezertxo ere entzun.

Ez du sartzera gonbidatu.

—Zerbait gehiago behar duzu? Bestela neure kontuekin jarraitu nahiko nuke — atea ixtera joan denean Leirek zangoa sartu du bitartean.

—Umea ez duzu ikusi, ezta? —etxe barruan ahalik eta gehien begiratzen ahalegindu da, baina Santik ez du aukera handirik ematen.

—Esan beharrekoa esan dut.

"Atseginetan atseginena, bai horixe".

## BOSGARRENEKOAK

Ezkerreko atean jo du Leirek lehenengo. Nikolasek ireki du atea. Sukaldeko amantala jarrita du. Ume biak atzerik hara jarraitu diote jostailuekin.

—Ezin ditut gainetik kendu. Oporretan daude...bazkaria prestatzeko ere zail daukat.

Poliziak egoera zein den azaldu dio:

—Ba...bai —eskuarekin aurreko atea seinalatu du—. Aurrekoak entzun ditut igogailuan zalaparta handia egiten eta gurpil-aulkia sartzen lagundu diet. Horrez gain ez dut besterik entzun goiz osoan. Umeekin musika entzuten, jolasten...gure etxeak zirkua dirudi.

Bosgarren eskumakoek —oraintsu heldu berri direnek— istorio bera kontatu dute.

Leire atarira joan da berriro ere. Han Manu dago, bere kidea, amama eta gurasoekin. Hauek lur jota daude. Ez dute etxeko sarreratik joan nahi zein eta umea agertuko.

—Hau da orain arte dudana —denek adi-adi entzun diote—. Umea Jugarren solairura arte heldu dela badakigu, Alaznek zenbaki digitalak ikusi dituelako. Gero zera dakigu, bosgarrenekoak, guztiak igogailuan egon direla hango andrea eta bere aulkia sartzeko. Zarata asko egin dutenez, momentu horretan bertan, eskaileretan egon den norbaitek umea hartu du eta bietako bat, edo bere etxean dauka edo Alazne bere amarekin egon den tarte horretan eraikinetik atera du. Etxe batzuetan sartu naiz, baina beste batzuetan ez. Hirugarrena, hutsik omen dago, baina han zaratak entzun dituzte.

—Etxeak arakatu behar ditugu oraintxe bertan, agindua eskatuko dut —Manuk telefonoa hartu du—. Galarazita dago inor eraikinetik irtetzea.

—Hirugarreneko etxe horretara ez inor sartzen? Maria Urrutiarenera?

—Alaba bat Madrilan dago, baina bestea, Maite, Josebaren tabernaren gainean bizi da, hor bertan —erantzun dio amamak Leire—. Ahizpak haserretuta daude eta ez dago oso argi etxea norena den. Horregatik ez dago alokatuta, baina arazoren bat egon denean etorri izan da.

—Haren zenbakia badu norbaitek?

## GAIZKILEAK

Baxu-baxu, ahapeka hitzegiten dute telefonoz:

—Esan dizut. Plan honekin kakatza ederrean sartuko gara.

—Zu zaude isilik. Orain arte hondoratu ez bazara nire diruagatik eta nire aitaren laguntzagatik izan da. Hainbeste paradisu fiskal, hainbeste itxurakeria... Kaka egiteko ere ez duzu balio eta behingoan zerbait egin badezakezu, egin eta listo!



—Zuk zure umea lortu arte ez duzu bakerik izan, ezta? Edozelan, edozein modutan... saltsa honetatik nola aterako garen pentsatu duzu? Nik esan nizun ume bat lortuko nizula, baina ez daukazu pazientziarik.

—Edozelan ez. Nik banekien gaur aukera bat izango nuela. Zertarako uste duzu egon naizela aste osoan lanean? Ezkutatzeke pisua badaezpada, erosketak... Zu baino ez zara falta. Mugitu zaitetz eta zatoz ahalik eta azkarren.

### ETXE BARRUETAN

Beste lau polizia etorri dira eta etxe guztietan begiratu dute. Santiri ez dio inolako graziaz egin halako inbasioak. Ez da harrizkoa halako zerritokia erakutsi nahi ez izana. Gainontzekoek laguntza osoa eskeini diete agenteei. Hutsik dauden pisuak baino ez dira falta begiratzeko. Badirudi horretan zortea dutela, ez diote sarraileari deitu beharko. Miaketa guztiak amaitu dituztenean bikote atzerritar bat heldu da, pisu turistikoak. Hasieran ikaratu egin dira horrenbesteko mugimenduekin, baina gero haiek ere euren pisua begiratzeko baimena eman dute. Minutu batzuk geroago Maria Urrutiaren alabak, Maitek, atea ireki die. Gutxiatik harrapatu dute etxean, oportetan joatekoa zen.

Etxe barruan dagoena ez da aparteko ezer polizientzat, baina Maitearentzat bai. Sarrera eta sala osoa supermerkatuko poltsa hutsez beteta dago.

—Ahizpari idatziko diot ea zerbait dakien.

—Baina ez al zeundeten haserretuta? —galdetu dio Manuk.

—Bai, baina tira... amari dagozkion kontuak zaintzeko komunikatzen gara.

Etxe bi horiek ikusi eta gero argi dago: Uxue ez dago eraikinean.

### BANATZAILEA

Halako batean hurbileko supermerkatu bateko banatzailea agertu da. Hura ere asaldatu egin da nor den eta nora doan galdetu diotenean. Lau kutxa daramatza bata bestearen gainean, bosgarreneko andreak egin berri duen erosketa da, eskari potolo bat. Igogailua berriro ere goian dago eta banatzailea, urduritasuna dela eta, nahiko berritsu dabil poliziekin:

—Bai, puffi. Aste honetan sarritan etorri naiz hona. Hirugarrenekoak konpetentzia egin behar digula dirudi!

Leirek hori entzun duenean sorbaldatik heldu dio:

—Hirugarreneko nork?

—Neska bat da. Berrogei urte inguruko bat. Aste osoa darama gauzak erosten. Hutsik dirudien pisu batean uzten du dena.

“Nolakoa da? Zer gehiago dakizu berari buruz?”. Banatzaileari galdera-zaparrada ederra etorri zaio gainera. Maite Urrutia ere han dago eta bere amaren etxean gertatzen ari dena ikusita bere ahizpari zuzenean deitzea erabaki du:

—Zer behar duzu? Espero dut zerbait garrantzitsua izatea, bestela nahikoa lan dut gure ama zaintzen.

—Entzun arretaz, Arantza. Norbait gure amaren etxean sartu da. Polizia ikertzen dago. Zuk badakizu zerbait? Norbaiti alokatu diozu etxea edo badakizu zer izan daitekeen? Etxea erosketako poltsaz beteta dago.

Arantzak ez du erantzun. Eman behar dion erantzunak pekatua dauka:

—Hasieran, duela bi urte hitzik ere egiten ez genuenean, bigarrenekoak kexatu ziren. Komuneko zorrotzenak itoginak egin zizkien. Arazoa laugarrenetik zetorren, baina aseguruakoak gurean ere sartu ziren. Ni hara joan nintzen behin, baina gero Gaizkari, aurrez aurrekoari, utzi nizkion giltzak.

Banatzailleak hirugarreneko andreak erosketa asko egin dituela esan du, hilabete baterako edo gehiagorako. Atzo bertan, iluntzean, bere lana amaitu eta gero etxe hartako erosketa batzuk ibaian dagoen pantalanera eramateko eskatu eta eskupeko ona eman zion. Gero goitik behera deskribatu du: emakume dotorea, atsegina, ondo jantzita doana, aberatsa dirudiena... Amama Mirenek entzun duenean ozen esan du!

—Ile beltza duen neska eder bat? Hori Gaizkaren neska-laguna da. Berarekin sarritan egin dut berba aste honetan. Uxuerentzat gordeta nuen oparia berak emandakoa zen, berak umerik ez duenez...

Mirenek oparia erakutsi duenean banatzaileak laster ezagutu du: supermerkatuaren urteurrenako panpina da, erosketa handi-handiei ematen zaiena. Neska hark jakin du Uxue amamari bisita egitekoa izan dena.

### BON VOYAGE

Leire, informazio harekin guztiarekin, ziztu bizian joan da Gaizkaren etxera. Zalantza gehiegi ditu haren inguruan. Atea jo du behin; birritan; hirutan... Han ez dago inor. "Nola da posible?". Ate nagusitik ez da irten, leihotik ere ez. Igogailuko makinetan ere ez dago. "Geldi! Zer da atetxo hau?". Polizietako batek ostikoz ireki du. Han ikusi dutena ez zaie batere gustatu. Ilun-ilun dago. Teilatuaren azpiko partea da, trastelekuak egon beharko luketen tokia, baina ez zen sekula banaketa egin. Ganbara handi hori Madariaga kaleko 37., 39. eta 41. zenbakiena da eta barrutik komunikatzen ditu. Gaizkak muturren aurrean ihes egin die, beste atari batetik irten da, baina bere burua behin betiko salatzen du. Bere negozio eta drogekin ez da gari garbia izan eta neska-lagunarekin batera Uxue bahitu du. Hartu duten janari guztia kontuan hartuta Atlantikoa belaontzian zeharkatzeko beste hornidura daukate. Karibeko hainbat kolonia ohi paradisu fiskalak dira eta ez daukate Espainiarekin estradizio-akordiorik. Plan ederra dirudi: eguzkia, dirua, umea... bizitza berri bat.

\*\*\*\*\*

Ibaizabaletik doa belaontzi ederra. Barakaldotik eta Erandiotik dozenaka polizia-kotxeren sirena-hotsa entzuten da ibaiaren bi aldeetan. Portugaleteko burdinazko zubia, bela-txapelketen hasiera izaten dena, Gaizkaren eta bere neska-lagunaren abenturaren helmuga eta Uxueren askatasunaren ikur izango da oraingoan.